

Apirila Maiatza Ekaina



ONTZIAK

212,5 Kg

KONTSUMOA

Lehen hiruhilekoan jasotako ia kantitate ia berdina jaso da bigarren hiruhilekoan. Urteko lehen hiru hilabeteetan 200 kg jaso ziren.



PAPERA

80.500 orri

KONTSUMOA

Apirilean eta maiatzean aurreko urteko ia paper kantitate berdina jaso den arren, ekainean kontsumoak gora egin du nabarmen. 2017ko ekainean 27.000 orri kontsumitu ziren, eta aurtengo ekainean, aldiz, 40.500 orri.

2.235 kg

BIRZIKLATZEA

Aurreko urteko lehen hiruhilekoan baino 190 kg gutxiago jaso dira edukiontzi urdinetan.



BA AL ZENEKIEN?

Plastikoaren inguruko hainbat datu

- Uztailaren 1etik debekaturik dago plastikozko poltsak doan ematea.
- Europar Batasunak 2021etik aurrera plastikozko poltsak kentzea proposatu du.
- Itsaso eta ozeanoek, urtero, 12 milioi tonelada zabor jasotzen dituzte.
- Estatuan, plastikoen %30 besterik ez da birziklatzen.
- Plastikozko botila batek 500 urte inguru behar ditu deskonposatzeko.
- Minutuko, plastikozko milioi bat botila erosten dira, 20.000 inguru segundo bakoitzean.
- Plastikozko poltsen %89 behin bakarrik erabiltzen dira, eta, batzaz beste, 12-25 minutuz erabiltzen dira. Deskonposatzeko, 100 eta 500 urte bitarte behar dituzte.

ETA... ZER EGIN DEZAKET NIK?

Fakultatean plastikozko hondakinak gutxitzeko aholkuak

01.

Ekidin plastiko kaltegarrien erabilera.

02.

Ez hartu erabili eta botatzeko plastikozko poltsarik.

03.

Ez edan plastikozko ur botilak.

04.

Erabili beste materialez egindako produktuak, ekidin lastotxoak, behin erabiltzeko edukiontzi eta mahi-tresnak.

05.

Solteko salmentetan erosi eta ekidin gehiegi paketatutako produktuak.

06.

Berrerabili plastikozko produktuak.

07.

Zure poltsa propioa eraman erosketak egitera.

08.

Azken finean...plastikoak duen inpaktuaz ohartu behar gara!

ERREPIDEAK EGITEN

Duela urte batzuk, Indiako kimika irakasle ezezagun batek, Rajagopalan Vasudevan, plastikozko hondakinak birziklatuz galtzadak zolatzeko materiala sortu zuen. Ikertzaileak, plastikoak egoera likidoan egundoko propietate aglomeratzaileak zituela aurkitu zuen. Plastikoa betunaren antzekoa da, hartxintxarrekin nahastu ohi dela errepideak asfaltatzeko, baina oraindik ere betuna baino hauskaitzagoa.

Horrela, 2002tik, 20.000 kilometro errepide plastikoarekin eraikiak izan dira Indian. Gehien bat, errepideetako zuloak estaltzeko erabiltzen da, Indiako istripuen %10a arrazoi horregatik baitira. Aurtengo urtarrilean, ikerkuntza honengatik, Rajagopalan Vasudevan doktoreak bere herrialdeko ohore zibilik handiena lortu zuen, Padma Sri-a.



Plastikozko hondakinak, laster errepideak asfaltatzeko zola bilakatuko dira.

ZER EGIN DEZAKET FAKULTATEAN?

Plastikoaren kudeaketarekin erlazionaturik hiru ohitura on har ditzakezu:




01.

Erabili edukiontzi horiak plastiko hondakinak botatzeko. Horrela, birziklatuz, plastikoa berreskuratzea lortuko dugu.



02.

Zentroko kafe makinetan erabili "edalontzirik gabe" aukera. Zure katilua erabiliz, bost zentimo aurrezteaz gain, beharrezkoa ez den hondakin plastikoak sortzea ekidingo dugu.



03.

Agorturiko zure bolaluma horiek jasotzeko dauzkagun Fakultateko edukiontziren batean utzi (Fakultate sarrerako Hallean edo idazkaritzan). Beraietan, bolalumak eta idazteko gainerako tresnen hondakinak utzi ahalko dituzu kudeaketa eta birziklatze egokia izan dezaten.

DESENTXUFATU EKIPOAK ERABILIKO EZ DITUZUNEAN

(lan eguna amaitzean, asteburuetan, oporretan...).

- Ez utzi stand-by eran.
- Erabili erregleta botoidunak.



Mesedez ez inprimatu aldizkari hau, espresuki pantailan ikusteko eginda dago. Aurrez dezagun toner/tinta eta papera!.

Hemen proposatutako ideien bat gauzatu nahi baduzu eta ez badakizu nola egin, edo iradokizun, ideia edo proposamenen bat baldin badaukazu, jar zaitez gurekin harremanetan honako helbide elektroniko honetara zuzenduta: gkz.ekoscan@ehu.es